

Mertxe Agundez

Arartekoaren laguntzailea

Alardea

Orain arte ez du horrela
jokatu, baina askok espero
dugu hurrengo urtera
begira Udalak,
herritarrendik hurbil
dagoen erakundea den
aldetik, lan egingo duela
bizikidetza esparruak sortu
eta pertsona guztiek beren
eskubideak bakez erabili
ahal izateko

■ Hilaren 8an berriz ere joan nintzen Hondarribira, eta berriz ere izan nintzen hango intolerantzia giroaren lekuko. Jaizkibel konpainiak, gizonez eta emakumez osatutako konpainiak, ezin izan zuen desfila-tu Alardean.

Baina larriena beste zerbait da. Alde batetik, udalbatzarrak eta, bereziki, alkateak, hartako agintari gorena baita, ez zuten babestu emakumeek gizonezkoen maila berean Alardean esku hartzeko duten eskubidea. Bestetik, Ertzaintzak, pertsona guztien eskubideak bermatu behar bazituen ere, azkenean emakumeen desfilea eragotzi zuen.

Justizi Auzitegi Gorenak emandako epaiaren ez-betetzeak defentsarik eza eta larritasuna ekarri ditu kolektibo horretara, guztiz babesgabe eta bere eskubideak bidezki erabili ezinik aurkitu baita. Gainera, ardurak ez betetze hori nagusikeria eta jarrera oldarkorrek bultzatzen ari da herritar batzuen artean, beste pertsona batzuen eskubideak ez errespetatzera ohitzen ari direlako, haiek gizartean gutxiengoa direla argudiatuz. Egoera horretan, indarren erabilpena, azkenean, begirune faltaren eta besteak dituen iritziak zein eskubideak -eskubideok lege-erabakiek bermatu arren- ez errespetatzearen ondorio logikoa izan ohi da.

Prozesu demokratikoaren eta Europako Batasunean sartzearen ondorioz gure herrian izandako arau-aldaketa garrantzitsuek funtsezko mudantza eragin dute emakumeekiko gizarte-estimazioan, eta nabarmen hobetu dute haren esku-hartzea gizarte-esparru guz-

tietan. Baina lege-aldaketak, beharrezkoak izan arren, ez dira aski, batzuetan usadioekin eta praktika kolektiboekin topo egiten dutelako.

Hain zuzen ere, herri-arduradunen obligazioa da emakumeak beren herriko edo hiriko bizitza sozialean, politikoan, kulturean, jai-giroan... sartzea lortzeko ekintzak bultzatzea.

Alkateak, udalbatzarraren oniritziarekin, ohiturak aldatu ditu, baina ez du hori egin gure erakunde (Parlamentuaren eta Eusko Jaurlaritzaren, EAEko Justizi Auzitegi Nagusiaren, Emakunderen, Arartekoaren) erabakiak betetzeko, baina fundazio pribatu baten esku utzeko hondarribiarren jai nagusiaren, hau da, Alardearen antolaketa eta garapena, bai Eusko Jaurlaritzak bai Nafarroako Gobernuak fundazio horren inskripzioa ez onartu arren.

Alkateak, Konstituzioko 9.2 artikuluan eta Estatutuan xedatutakoari lotetsita baitago, esku-hartzea eta elkarriketa bultzatu beharko zituzkeen, herritar guztiek, Hondarribiko herri osoak, balio demokratikoak beregana ditzaten. Hala ere, orain arte ez du horrela jokatu, baina askok espero dugu hurrengo urtera begira Udalak, herritarrendik hurbil dagoen erakundea den aldetik, lan egingo duela bizikidetza esparruak sortu eta pertsona guztiek beren eskubideak bakez erabili ahal izateko, hala nola giza eskubideak errespetatuko dituen kultura molde bat bultzatu eta guztiontzat, emakume zein gizon, gizarte zuzenago eta berdinkoia bat lortzeko. ■

Erredakzioan itzulia

Ur Apalategi



Telenovela

Sabrina... Hitzak falta zaizkit sentitzen dudana adierazteko. Uste nuen urteetako elkarrekiko gorroto eta bekaitzak orbain sendaezinak marraztu zituela nire bihotzean, baina mirariz ez da hala.

- Egon lasai, Harry, nik ere antzeko lurrikara bizi dut eta.

- Badakizu zer nolakoak esan ditudan zure kontura... ema-galdu bat zinela, diruaren mintzoa baizik ez zenuela ulertzen, horregatik alde egin zenuela herritik eta nire ondotik. Ulertu behar duzu, nik familia bat eraiki nahi nuen zurekin... Herriko- ei, hiriburutik aberastasunez kargaturik itzultzen zinenetan, zure txuloaren opariak zirela kontatzen nien. Askok sinetsi egiten zidaten, baina gehienak harro zeuden herriko neskatxaren arrakastaz, zure atentzio txikiek asetzen zituzten, are gehiago zein gizon boteretsuekin zenbiltzan ikusita. Eta niretzako hori jasan ezina zen. Ez dakit inoiz neure buruari barkatuko diodan...

-Isil zaitez, txotxolo, elkarrekin gaude berriro eta hori da garrantzitsua.

-Baina min handia egin dizut herrikoen aurrean.

- Ez uste kontzientzia lasai dudarik, Harry laz-tana. Nik egindakoa ere ez da txantxetako. Funtsean, arrazoia duzu, modu batera edo bestera neure burua saltzen ibili naiz urteotan. Ederra sentitzen nintzen eta beldurtzen ninduen inoiz herritik atera ez zen mutil ia nerabe batekin lotzeak. Plazerrak dastatzeko irrikan nengoen, urte ederrenak aurrean nituen eta ez nituen inolaz ere herrian igaro nahi. Esperientzia zuten gizonak ezagutu nahi nituen. Horrez gain, posesiboezia zinen eta zure jeloskeri bortitzari matxismo herritar karkaren traza hartzen nion. Oh, Harry...

-Hobe dugu iraganaren errautsetan ez eskurik sartzea, maitea.

Udazkenari aurrea hartu dion haize zirimola-tsuak Amarako geltokia hosto horituz hornitzen du. Maitale berantiarak La Estellesa-ren autobusera igo dira, lurralde samurragoen bila abiatzeko asmoz.

Kornerra

Mikel Elorza

Argi gabeko distira

■ Ikasturtea abiatu da Esperanza Agirre eta Espainiako Erregea Nafarroan euskara zirtziltzen ibilitalo ekitaldian. Egia esatera, hobe da Espainiako autoridadeak penintsulako dialektoak intimotasunean bakarrik hitz egitea; jendaurrean egiten dutenean fartsa tankera hartzen du (derradan bidenabar: Euskal Herriko hainbat agintariek egiten duenean bezalaxe). Baina tira, Euskalerrria irrati lizentzia behin eta berriro ostu diotenak ez die elkarriketarik egiten eta apurotik libre dira. Espainiako urte judiziala ere abian da, eta PSOEkoek muzin egin zioten ekitaldiari. Normala da. Euren presoen senideen elkarteren bat osatzen ariko ziren, premia badute-eta (laster sakabanaketaren aurka agertu beharko ote dute?).

Ikasturteak, urte judiziala, atzo komentatutako hauteskundeak... dena abian da, martxan da, eta aurrera egiten dugunik inolako inpresiorik ez. Gaur bertan abiatuko den Zinemaldiaren parte ematen du, fikzioa, film hutsa, antzezpen ilauna.

L A P h I T Z A

